

Landa Garapenerako Eskualdeko Programak 2015 > 2020



LANDAGUNE BIZIA, BIZI KALITATEA

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

EKONOMAREN GARAPEN
ETA LEHAKORTASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE DESARROLLO
ECONÓMICO Y COMPETITIVIDAD

hazi

LANDA, PROIEKTUZ EN ERABILKETA SUSTENTIBEL
TEKNOLOGIA BERRIA, LANITZA, Y DIVERSITATEA





Euskal landa-ingurunea: funtzioaniztasuna eta lurralde-oreka

— LANDAGUNE BIZIA, BIZI KALITATEA —



Landa
Garapenerako
Eskualdeko
Programak
2015 > 2020

Euskal landa-inguruneak, lehen sektoreari dagozkion ekoizpen-ekarpenez haratago, ekarpen funtzio-anitz garrantzitsuak egiten dizkio gizarte osoari; izan ere, funtzio ekonomikoa, ingurumen-funtzioa eta gizarte-eta kultura-funtzioak betetzen ditu. Esaterako:

Osasun-bermea betetzen duten kalitateko lehengaiak eta elikagaiak ekoizten ditu.

Espazioa eta lurraldea kudeatu eta baliabide naturalak, biodibertistatea eta paisaiak administratzen ditu.

Landa-ingurunearen ezaugarri funtsezkoenak bermatzen ditu.

Landa-ingurunearen izaera funtzioaniztuna oinarritzkoa da gaur egungo gizarte baten garapen iraunkorra bermatzeko, eta azpimarratzekoa da nekazaritza-jarduera oinarritzko eragilea dela landa-nortasun horri, eta hedaduraz Euskadiko nortasunari, eusteko.

Lurraldearen garapena orekatua izan dadin, beharrezkoa da landako eta hiriko bilakaera aldi berean gertatzea. Ondorioz, landa-ingurunea bizia eta aktiboa izateko, eta bertako biztanleriaren funtzio produktiboak, ingurumenekoak, sozialak eta kulturalak garrantzitsuak izaten jarraitzeko, ezinbestekoa da euskal gizarte osoak hori erabat balioestea.


LANDAGUNE BIZIA, BIZI KALITATEA





Landa Garapenerako eskualdeko Programak (LGP)

— LANDAGUNE BIZIA, BIZI KALITATEA —



Landa
Garapenerako
Eskualdeko
Programak
2015 > 2020

ZER DA ?

Plangintza estrategikorako eta kudeaketa iraunkorrerako tresna bat da, Euskadiko landa-ingurunearen garapenerako 10/1998 Legean (lurraldeko funtzioaniztasuna eta oreka zaintzeko sortua) jatorria duena.

Bertan jasotzen denez “... Bereziki Euskal Herriko Landa ingurunea garatzera orientatzen diren politikek landa ingurunearen garapenerako programen forma hartuko dute.

Programa honen helburua da eskualdearen garapen integrala sustatzea, eta horretarako, inplikaturako eragile guztiek parte hartzea eta konpromisoak hartzea, bai eta helburuak nahiz jardueraren eremuak zehaztea ere.

ZERTARAKO ?

Eskualde bakoitzeko landa-inguruneen garapenean lagundu nahi duten erakunde, administrazio eta pertsona guztiek (era guztietako baliabideekin: ekonomikoak, giza baliabideak, instalazioak...):

*Argi izan dezaten zein diren landa-inguruneetako beharrei eta kezkei erantzuteko **eskualde bakoitzean identifikatutako apustu nagusiak.***

***Dinamizaziorako tresna komun bat** izan dezaten, programan jasotako jarduerak abian jartzea bizkortzeko eta bermatzeko.*

***Lanerako oinarritzko dokumentua** izan dezaten, landa-garapenearen alde lan egiten duten erakunde eta administrazio orotan.*





ZERGATIK ORAIN ?

Landa-garapenerako programak eguneratzeko beharra dago, arrazoi hauek direla-eta:

Landa-garapenerako azken programa 2007. urtekoa da. Aldi honetan landa-inguruneetan aldaketa garrantzitsuak izan dira.

Europar Batasuneko finantza-esparruko **Landa Garapenerako Programa (LGP) 2015-2020** berria definitzearekin eta indarrean jartzearekin batera gertatu da prozesua.

Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) 18 landa-eskualdeetan programa aldi berean eginez, egin beharreko prozesuen kudeaketa koordinatuagoa, integratuagoa eta koherenteagoa izango da, eta errazagoa izango da **lankidetzaz-estrategiak** identifikatzea eta abiaraztea.

Eguneratze-prozesu honen emaitzak, LGP 2015-2020 berrian jasotako ildo estrategikoekin batera, **Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailaren erreferentziak** izango dira, landa-inguruneetako laguntza-politikak zuzentzeko garaian.

LGP, plangintzarako tresna

LGP, plangintzarako tresnatzat hartuta, bi multzo nagusik osatzen dute:

Hasierako diagnostikoa

Aurreko programazioaren azterketa (LGP 2007-2013) eta eskualdean dauden beste plangintza batzuk ditugu.

Eskualdeko esparru estrategikoa

2015-2020 aldirian eskualdean garatuko den estrategia jasotzen du. Sustatu beharreko jardueretatik urte bakoitzean zein lehenetsi behar diren jakiteko erreferentziazko esparrua da, eta jarduera horiek eskualde bakoitzeko Urteko Kudeaketa Planean jasoko dira.

Eskualdeko esparru estrategikoak

Prozesuaren antolaketa eta irteera


Hasierako diagnostikoa



Eragile-sarea



Aldi berri honetan, batik bat, nabarmendu nahi da garrantzi handia duela **parte hartzeak**, bai programaren lantze-aldian, bai programa abian jartzen denean; eskualdeko landa-inguruneei lotutako pertsona eta/edo erakunde guztiekin egin nahi da lan, haien gaitasunek eta jarrerek bilakaerari laguntzen baitiote. Hori dela-eta, eskualdeko landa-garapenaren aldeko **eragile-sare** sendo bat osatu nahi da.



EAE-ko landa-garapenaren ildo estrategikoak

Landa
Garapenerako
Eskualdeko
Programak
2015 > 2020





Landa
Garapenerako
Eskualdeko
Programak
2015 > 2020

LANDAGUNE BIZIA, BIZI KALITATEA

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

EKONOMIAREN GARAPEN
ETA LEHIAGORTASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE DESARROLLO
ECONÓMICO Y COMPETITIVIDAD

hazi

LANDA. Pasaerako eta ELKARREAN GORTASUN
EKOLOGIKO, BIZI, ETIAK, / AGRICULTURA

